

2. Pasabidea. Gipuzkoa Etorbidea 56.

Pasabide honetan dagoen semaforoa ez dago besteekin sinkronizatuta eta, ondorioz, funtzionamendu-denborak erraz alda daitezke, beste pasabide batekoen menpe egon beharrik gabe.

Pasabide honetan oinezkoek espaloi bien artean gurutzatu beharreko distantzia 7 m-koa da, beraz, oinezkoak pasatzeko gutxienezko funtzionamendu-denbora 14 segundo dira.

Oinezkoak pasatzeko argi berdez egun dagoen denbora 18 segundo dira eta argi gorrian zain egotekoa 52 segundo.

Ibilgailuen kasuan, argi berdez pasatzeko duten denbora 46 segundo dira eta argi gorritz zain egotekoa 24 segundo.

Hobekuntza moduan proposatu da oinezkoentzako argi berdez egoteko denbora 20 segundo izatea, pasabide horretan pertsona asko ibiltzen delako joan-etorrian, batez ere San Lorenzo ikastetxea gertu dagoelako, eta bi segundo gehiago luzatzeak ez lukeelako auto-ilara handiagoa sortuko ezinbestez.

Pasabide honetan instalatuta dagoen ekipoa zaharra da eta ezin dira ordutegi ezberdinak ipini lanegunetarako eta asteburuetarako.

